

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA
SAILA

Zerbitzu Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y
POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Dirección de Servicios

*Gobernantza Publiko eta Autogobernua/
Gobernanza Pública y Autogobierno.***OHARRAK EGIN BEHAR EZ IZATEKO TXOSTENA /
INFORME DE NO REALIZACIÓN DE OBSERVACIONES**

2023ko apirilaren 27an, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren Agindua jaso dugu Kultura eta Hizkuntza Politika Sailean. Horren bidez, alde zuzenetik onartu da euskal ondare-zuzenbidearen eta ondarearen eta familia-enpresaren defentsaren espezialitateen lege-aurreproiektua.

Proiektaturiko arauaren edukia aztertuta, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari esleitutako eskumen-esparruari bakarrik erreparatuta, ez diogu inongo oharrik egin behar irizpenerako aurkeztu diguzuen testuari.

Hizkuntza Politikaren sailburuordetzak txostena eman beharko du. **Euskara normaltasunez erabiltzearen inguruko txostena** emateko derrigortasuna honako Dekretu honek ezartzen du: azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duena.

Horri dagokionez, gogorarazi behar da ezen, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legea indarrean sartzeak berekin ekarri duela zuzendaritza-zentro eskudunak txosten bat egin behar izatea xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabilera normalizatzeko ikuspegia aztertzeko (6/2022 Legearen 15.3 g) artikulua), baina 233/2012 Dekretuak ez duela indarraldia galdu.

Eman diguzuen aukera eskertzen dizuegu.

Adeitasunez,

Hemos recibido con fecha de 27 de abril de 2023 en el Departamento de Cultura y Política Lingüística Orden de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno por la que se aprueba con carácter previo el anteproyecto de ley de especialidades en materia de derecho patrimonial vasco y defensa del patrimonio y la empresa familiar.

Analizado el contenido de la norma proyectada, y atendiendo exclusivamente al ámbito competencial atribuido al Departamento de Cultura y Política Lingüística no se formula observación alguna al texto sometido a nuestra consideración.

Elo será sin perjuicio del **informe que deberá emitir la Viceconsejería de Política Lingüística**, de conformidad con lo establecido en el Decreto 233/2012, de 6 de noviembre, por el que se establece el régimen de inclusión de la perspectiva de normalización del uso del euskera en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general.

A este respecto, procede recordar que, si bien la entrada en vigor de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, ha supuesto que el centro directivo competente deba emitir un informe que analice la perspectiva de normalización del uso del euskera en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general (artículo 15.3 g) de la Ley 6/2022), el Decreto 233/2012 no ha perdido su vigencia.

Agradecemos la oportunidad que nos han brindado.

Atentamente,

Vitoria-Gasteizen, izenpe elektronikoaren datan,

LEIRE CORRALES GOTI
Zerbitzuen zuzendaria